

3seuskadi

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO NEURRIEN IV. TXOSTENA (2023)

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala sustatzeko ekintzekin
lotutako neurriak hedatzea

2023



3seuskadi

Hirugarren Sektorre Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 19. artikuluaaren arabera, gizarte-politiken inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak urtero prestatuko du sustapen-neurrien gaineko txostena. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek sustapen-ekintzen gainekoa izango da txostena, publikoa izango da, eta sektore publikoak eta pribatuak bultzatutako sustapen-neurrien gaineko informazio eguneratua eta sistematizatua jasoko du, baita sustapen-ekintzak hobetzeko orientabideak ere.

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1. artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektore soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiazea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

Sustapen-neurrien laugarren txostenaren hurbilpena	1
Aurkezpena	2
Kokatzea.....	5
Metodologia.....	6
EAEko ikastetxeek 2022an bultzatutako sustapen-ekintzaren sistematizazioa	9
Zer eragile berri gehitu dira?	10
Nolakoak dira bultzatutako sustapen-neurriak?.....	10
Zer lurraldetan dute eragina?	13
Nola sustatzen dituzte? Eragile askoren arteko elkarlana, sustapen-neurrien bultzadan	13
Nori zuzenduta daude?	13
2019-2022 urteen artean bultzatutako sustapen-ekintzaren sistematizazioa	16
Zer eragilek bultzatzen dituzte sustapen-neurriak?	17
Nolakoak dira bultzatutako sustapen-neurriak?.....	19
Zer lurraldetan dute eragina?	25
Nola sustatzen dituzte? Eragile askoren arteko elkarlana, sustapen-neurrien bultzadan	25
Nori zuzenduta daude?	26



Sustapen-neurrien laugarren txostenaren hurbilpena

Aurkezpena

Sustapen-neurrien txostenerako sarrera


Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala (aurrerantzean, EHSS) bultzatzeko eta sustatzeko aurreikusten dituen politiken baitan kokatzen dira EHSSko erakundeak eta sareak sustatzeko ekintzen deskribapena eta etengabeko hobekuntza, eta lege horren arabera antolatu behar dira, bereziki, lege horren IV. kapituluaren arabera. Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko Estrategiak (aurrerantzean, EHSSSE) ere jasotzen ditu politika horrek.

EHSSko sustapen-neurriei buruzko txostena **urtero** egiteko betebeharra Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen (aurrerantzean EHSSL) 19. artikuluan jasotzen da, eta honakoa adierazten du: “txosten hori publikoa izango da, eta sektore publikoak eta pribatuak bultzatutako sustapen-neurrien gaineko informazio eguneratua eta sistematizatu jasoko du” (2. paragrafoa)¹.

EHSSLk xedatutakoaren arabera, txostenaren helburua da txostena egin den urtean erabilgarri dauden neurriak xehetasun osoz ezagutzea ahalbidetuko duen EHSSren aldeko sustapen-ekintza publiko eta pribatuaren aldizkako panoramika eskaintzea, sustatu ahal izateko.

2020an egin zen 2019an sustatuko neurriei ²buruzko lehen txostena eta horrek aukera eman zuen sustapen-ekintzaren dibertsitatearen eta zabaltasunaren irudi orokorra lortzeko. Dena den, lanketa horren ondorioz, hurrengo txostenetan sakontzen jarraitu beharreko alderdi batzuk identifikatu ziren. Hala, 2021eko txostenaren gai nagusiak izan ziren 2020an eta 2021ean enpresa sektoreak bultzatutako sustapen-neurriak. Horri esker, enpresen bidez garatutako sustapen-ekintza anitzari eta zabalarri buruzko irudi monografikoa lortu ahal izan zen. 2022 eta 2023an, txostena, izaera deskribatzailekoa, EHSS sustatzeko lanean modu aktiboan parte hartu duten eragileen unibertsoa eragile berriak eta, bide batez, sustapen-ekintza berriak gehitzeko ahaleginean saiatu da bereziki. Txosten deskriptiboa sustapen-ekintzari eskainitako lau urteko zikloaren parte da, eta hiru-txosten mota ditu:

- A. **Txosten orokorra:** horren helburu nagusia da sustapen-ekintza guztiak egin aurreko urteari dagozkion deskribapena eta balorazioa eskaintzea eta hobetzeko proposamen eta orientazioak zehaztea.
- B. **Txosten monografikoa:** horren helburua da sustapen-ekintzarekin lotutako alderdi espezifikoak sakontzea eragile jakin batzuek bultzatutako edo txosten orokorrean identifikatutako erronkekin, hobetzeko proposamenekin eta azterketa kualitatiboekin lotutako sustapen-neurrien inguruko ezagutza areagotzeko.
- C. **Hiru txosten deskriptibo:** EHSSren sustapeneko neurriak eta eragileen datuak etengabe eguneratzeko sistema garatzearen ondorioa dira. Izaera deskriptiboa bakarrik dute eta txostenek sustapeneko eragileen eta neurrien sistematizazioa jasotzen dute.



¹ Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

² Orain arte argitaratutako txosten guztiak esteka honetan daude eskuragarri: <https://3seuskadi.eus/zer-egiten-dugu/eu-medidas-de-promocion-de-tsse/?lang=eu>

Beraz, txosten hau, ziklo honen laugarren urteari dagokiona, deskribatzailea da, eta urtez urte EHSSren sustapenean funtsezko lana egiten duten eta orain arte egindako txostenetan identifikatu ez diren eragileen aniztasuna handitzera bideratuta dago. Argitaratutako azken txostenetan identifikatutako eragileen aniztasunaren atzera begirako berrikuspen labur bat egin ondoren, orain arte unibertsoan ordezkariak nabarmenik ez zuten hezkuntza-esparruko erakundeak eragile sustatzaileen unibertsoan sartzeko beharra identifikatu zen. Hori dela eta, txosten honen bidez, hezkuntza arloko erakundeen identifikazioa handitu nahi izan da eta, horren bidez, sustapeneko eragileen ekosisteman duten garrantzira gehiago egokitzen den ikuspegia eskaini.

Azken txosten horren ondorioz, hiru lurralde historikoetako lehen eta bigarren mailako hezkuntzako 52 ikastetxek (publikoak zein pribatuak) bultzatutako 133 sustapen-neurri inguru identifikatu dira.

Justifikazioa eta helburuak

EHSSLak dio sektoreen arteko lankidetzak “beharrezkoa dela gizarte bidezkoagoa, parekideagoa, solidarioagoa eta demokratikagoa sustatzeko, bai eta gero eta konplexuagoak diren gizarte-beharrei eta gizarte globalaren erronkei erantzuteko ere”³.

Gainera, besteak beste, EHSSLk aurreikusten du Euskadiko administrazio publikoek Hirugarren Sektore Sozialaren eta enpresa-sektorearen arteko lankidetzak sustatzea, esku-hartze sozialaren arloan. 24.2 artikulua lankidetzak hori sustatzeko ekimenak jasotzen ditu, eta hainbat motatako ekintzen bidez zehazten dira, bai baliabide ekonomikoak mugiaraziz (laguntza edo mezenasgoa, dohaintza, arrazoi baterako marketina, etab.), bai giza baliabideak (esaterako, ekintza boluntario korporatiboak) edo beste mota batekoak mugiaraziz.

Zehatzago esanda, sektore publikoaren eta gizarte-erakundeen arteko lankidetzari dagokionez, esku-hartze sozialaren esparruan, aipamen esplizitua egiten da EHSSren lesparru legalean eta estrategikoan ere. Hain zuzen ere, EHSSLak bi sektoreek behar eta erronka sozialei erantzuteko eragile gako gisa duten garrantzia azpimarratzen du. Horregatik, lege horretan jasotako helburuen artean, 1. artikulua dio xedea “erakundeen kooperazioa eta lankidetzak, beren artekoa eta sektore publikoarekin eta enpresekin dutena, sustatzea” dela eta, horrekin lotuta, kapitulu oso bat EHSS sustatzera zuzenduta dago. Azken hori EHSSLko 18. artikuluan dago jasota. Honela dio: “foru-aldundiek eta tokiko erakundeek hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategiak prestatuko dituzte haien eskumeneko geografia esparruetan” eta, ondorioz, horrek EAEko udalei zuzenean dei egiten die. Gainera, artikuluko bigarren puntuak honako hau gehitzen du: “foru-aldundiek eta toki-erakundeek urtero dirulaguntzen deialdiak egingo dituzte, hirugarren sektoreko erakundeek interes orokorreko gizarte-jarduerak egin ditzaten laguntzeko”. Era berean, lege mailako esparru horrekin lotuta, EHSSSEk 2. helburua lankidetzak publiko-soziala, elkarriketa zibilekoa eta eredu mistokoa garatzera bideratzen du besteak beste “sustapen-estrategiak zeharkakotzeko”.

Lege eta estrategia mailako esparru horrek indartu egiten du hiru lurralde historikoetan EHSSren sustapenean eta bultzadan eragile garrantzitsuak diren ikastetxeak eragile sustatzaile protagonista gisa txertatzeko beharra, sustapen-neurriak biltzen dituen IV. txosten honetan jasotako hainbat neurrien bidez.

Orain arte egindako txostenek ez zuten erabat aztertzen hezkuntza-erakundeek (publikoak zein pribatuak) EHSSko eragile sustatzaile gisa izandako garrantzia. Horri buruzko txostenaren atal espezifikoak EAEko **ikastetxeek** sustatze-eragile gisa duten rola jasotzen du, EHSSk 19. artikuluan “sustapen-neurriei buruzko txostenari” ematen dion

³EHSSLren arrazoiaren azalpena, hogeita hamabosgarren paragrafoa.

lanarekin jarraitzeko. Txosten horren helburua da, besteak beste, sektore publikoak eta sektore pribatuak hartutako neurriei buruzko informazio eguneratua eta sistematizaturia sartzea.

Txosten horrek, beraz, EHSSren sustapen-ekintza bilatzen eta sistematizatzen jarraitzen du, proposatutako zikloaren aldi bakoitzean aurreko aldian baino sustapen-neurrien oinarri aberatsagoa eta zabalagoa izan dezan.

Edonola ere, sustapeneko ekintzekin lotuta lanean ari diren eragileen kopurua eta aniztasuna direla eta, ezin daiteke amaitutzat eman Euskadin bultzatutako neurri guztiak jasotzeko lana. Dena den, EHSSren sustapen-neurriei buruzko lehen txostenetik hiru urte igaro diren honetan, orain arte identifikatutako sustapen-neurrien kopurua eta xehetasunak nabarmen handitu direla ikus daiteke.

Hala, etorkizunean beste irizpide batzuk txerta badaitezke ere, lan hau egiteko orduan **irizpide** hauek hartu ditugu kontuan:

- **Lurraldeen arteko oreka:** txostenak hiru Lurralde Historikoei eskainitako arreta orekatua izatea, baita erkidego mailako eta tokiko ekintzei jarritako arreta ere.
- Eragileen aukeraketa eta aniztasuna: identifikatutako neurriak sektore publikoari eta pribatuari buruzkoak izatea, eragileen arteko lankidetzari dagokionez, EHSSren 19. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, eta sustapen-ekintzaren esparruan sustatutako neurrien aniztasuna erakustea.

Sustapeneko ekintzari eskainitako lau urterako zikloan barneratuta, hurrengo edizioek aukera emango dute neurri gehiago biltzeko, fokua sakondu nahi diren eremu espezifikoei jartzeko, agertzen/desagertzen diren **neurrien bilakaera** ikusteko, eta aztertutako urtearen eta aurrekoaren arteko alde nagusiak (edukiei, eragileei, erakundeei eta hartzaileen sareei dagokienez) ikusteko, baita epe luzeagoei dagozkien aldeak ere.

Txostenaren atalak

Txosten honek bi atal ditu, eta bat datoz gorago aipatutako helburu eta irizpideekin:

1. **Atal espezifikoa.** Lehen atal honen **helburua** da azken txosten **deskriptiboan identifikatutako eragile eta neurri berrien berri ematea** eta, hala, EHSSko sustapen-neurriak sustatzen dituzten **eragileen eta neurrien aniztasunaren** inguruko ezagutza **zabaltzen** laguntzea. Aurreko txostenetan egin den bezala, alderdi hauek hartuko dira kontuan (besteak beste): sustapen-neurriak bultzatzen dituzten eragileen ezaugarriak; bultzatzen diren neurrien ezaugarriak; eragina duten lurraldea; horiek bultzatzeko zereginean emandako lankidetzak; eta, azkenik, jarduera esparru nagusiaren arabera hartzaileak diren EHSSko erakundeak eta sareak.
2. **Alderdi orokorra.** Bigarren atal honetan, 2019tik aurrera orain arte sustatu eta jaso den sustapen-ekintzaren deskribapen kuantitatiboa eskaintzen da, beste behin ere honako alderdi hauek kontuan hartuta: sustapen-neurriak sustatzen dituzten eragileen ezaugarriak (mota, tamaina, jarduera ekonomiko nagusia); bultzatzen dituzten neurrien ezaugarriak (kategoria, mobilizatzen dituzten baliabide- motak); eragina duten lurraldea; bultzatzeko garaian jasotzen duten lankidetzak; eta, azkenik, jarduera esparru nagusiaren arabera, hartzaile diren EHSSko erakundeak eta sareak. Beste nolabait esanda, alderdi orokor honen **helburua da azken urteotan**

Euskadin garatutako sustapen-neurrien aniztasunaren inguruko ikuspegia erakustea. Hain zuzen ere, ondoz ondo, urtez urte, egindako txosten horien helburua da ikuspegi hori zabaltzea.

Kokatzea

Sustapen-neurriaren definizioa

Hemen jarraipena ematen zaio sustapen-neurrien lehen txostenean (2020) ezarritako definizioari. Honela definitzen zuen sustapen-neurria: “EHSS osatzen duten **erakunde edo sareak garatzera eta hobetzera bideratutako** eta **erakunde eta sare horietatik kanpoko eragileek egindako edo bultzatutako** edozein **ekintza zehatzek** (modu operatiboan definituta) eta horretarako **baliabideak esleitura** dituenak (taldeak, aurrekontua...); edonola ere horiek diseinuan, garapenean eta/edo ebaluazioan parte har dezakete” (8. or.).

Lehen txosten horretan, gainera, argitzen zen sustapen-neurriak izan zitezkeela “EHSSko erakundeetan eta sareen gaitasunak edo baliabideak (giza baliabideak, ekonomikoak...) modu argian eta zuzenean indartzen dituzten sektore arteko lankidetzak-ekintzak; adibidez, enpresek EHSSko erakundeetan hedatutako boluntarioritza korporatiboa, edo kausadun marketina”. Kontrara, ezingo dira sustapen-neurri gisa hartu “EHSSko erakundeak eta sareak sustatzea (jasangarritasuna, garapena, hobekuntza...) ez den beste helburu batzuekin hirugarrengoei sustatutako jarduketak, indartzea terminoaren definizioa zabala den arren (esaterako, koherentzia bezalako alderdiak barne hartzen ditu)”.

Sustapen-neurrien sailkapena

Gainera, txosten honek identifikatutako neurrien sailkapenari eusten dio, lehenengo txostenean ezarritako kategorizazioaren arabera. Txostenean 15 mota aipatzen ziren:

- 1. EHSS EZAGUTZEA ETA AITORTZEA:** EHSSko erakundeetan eta sareen lana, jarduera, ibilbidea, etab. ezagutzera ematea eta aitortzea helburu duten jarduerak.
- 2. ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA INDARTZEA:** hainbat bideren eta kudeaketa hobetzearen bidez erakundeak eta sareak indartzea helburu duten jarduerak.
- 3. AZPIEGITURAK:** EHSSko erakundeei eta sareei azpiegiturak eskuratzea edo haiek eraikitzea, berritzea edo modernizatzea erraztera bideratutako jarduerak.
- 4. FISKALITATEA:** EHSSko erakundeei zuzendutako onura fiskalak edo EHSSko erakundeei opari, dohaintza eta ekarpenak egiteagatik hirugarrenek dituzten pizgarri fiskalak arautzen dituen araudi edo ordenantza fiskalean jasotako jarduerak.
- 5. FINANTZAKETA:** EHSSko erakunde eta sareen jarduera propioa (erantzukizun publikoko zorroetan jasota ez dauden zerbitzuak) eta kudeaketarako, prestakuntzarako... beste laguntza batzuk finantzatzera bideratutako jarduerak.
- 6. SUSTAPENENKO ESTRATEGIA ESPEZIFIKOAK:** Sektore publikoaren sustapen-estrategia espezifikak eta beste ekintza batzuk
- 7. BOLUNTARIOTZA ETA ASOZIAZIONISMOA SUSTATZEA:** emakumeak, gazteak, adinekoak eta herritarrak bazkide edo boluntario (boluntarioritza soziala) gisa sustatzeko tresnak (agentziak) eta ekintzak.

- 8. FUNTZIOEN OREKA:** erakundeek eta sareek zerbitzuak ematearekin zerikusirik ez duten funtzioak garatzea ahalbidetzen duten ekintzak: beharrak hautematea, ikerketa, berrikuntza, sentsibilizazioa, salaketa, eskubideen sustapena, batak besteari laguntzea...
- 9. KOHERENTZIA:** erakundeetan honakoak sustatzera bideratutako ekintzak: berdintasuna, kontziliazioa, aniztasuna, integrazioa, euskararen erabileraren normalizazioa eta, orokorrean, sektorearen balioak adieraztea eta pertsonen eskubideak erabiltzea.
- 10. BETEBEHARRAK BETETZEA:** erakundeak egungo arau-aldaketetara edo aurreikusita dauden arau-aldaketetara egokitzeko laguntza.
- 11. BALIO ERANTSIA INDARTZEA:** erakundeak bereizten dituzten eta erantzukizun publikoko zerbitzuen eskaintzari balioa eransten dioten alderdiak garatzeko laguntza.
- 12. SEKTOREEN ARTEKO LANKIDETZA:** elkarlan horizontala eta sareko lana bultzatzera bideratutako ekintzak.
- 13. SEKTORE PUBLIKOAREKIN LANKIDETZA:** elkarlan horizontala eta sareko lana bultzatzera bideratutako ekintzak.
- 14. BESTE SEKTORE, ERAKUNDE ETA MUGIMENDU SOZIAL BATZUEKIN LANKIDETZA:** EHSSko erakundeek, eta sareek eta sektore publikoak gaindiko beste sektore batzuen arteko elkarlana errazten edo sustatzen duten jarduerak.
- 15: SUSTAPEN NEURRIETARAKO SARBIDEA:** erakundeei (bereziki, elkarte txiki eta ertainei) laguntzeko egiturak, sustapen-neurrietarako sarbidea errazteko.

Metodologia

Neurriak eta eragileak identifikatzeko metodologia

Jarraian, eragileak eta beraiek sustatutako sustapen-neurriak identifikatu eta erregistratzeko garatutako prozesuak eta metodoak deskribatuko ditugu. Identifikatutako ia kasu guztietan, sustapen-neurriak webgunetik arakatu dira.

Hiru lurralde historikoetako hezkuntza esparruko eragileen ausazko lagin baten artean **webguneen miaketa** egin zen, ezarritako aldian bultzatutako neurriak identifikatzeko asmoz. Horretarako, hiru lurralde historikoetako ikastetxe askotako jarduera-memoriak eta buletinak berrikusi ziren, sustapen-neurrien indarraldi-urtea erreferentziazat hartuta (kasu honetan, 2022), eta EHSSko erakundeetara bidera zitekeen edozein sustapen-neurri identifikatuta.

Gerora, eskuratutako **datuak iragazi** ziren, errepikapenak ezabatzeko edo akatsak zuzentzeko, eta neurriak deskribatutako kategorizazio-metodoen bidez sailkatu ziren. Guztira, 133 sustapen-neurri eta hezkuntza arloko 52 eragile identifikatu dira. Neurri bakoitza datu-base batean erregistratu da. Datu-base horretan lehendik jasota daude aurreko urteetako neurri guztiak, bai eta neurrien eragile sustatzaileak eta erakunde onuradunak ere. Azterlanaren helburua miaketa egitea den arren, eta lan-prozesuan ordezkagarritasuneko irizpideak zehatz-mehatz kontuan hartu ez diren arren, aztertutako hezkuntza arloko eragileen % 12,4k (gutxi gorabehera) bultzatu du 2022an zehar sustapeneko neurrien bat.

Aurreko urteetan bezalaxe, bildutako informazioa SPSS azterketa estatistikorako programarekin tratatu eta alderdi hauen (besteak beste) inguruko azterketa deskriptiboa egin da: sustapen-neurriak bultzatzen dituzten eragileen ezaugarriak (mota, tamaina, jarduera ekonomiko nagusia); bultzatutako neurrien ezaugarriak (kategoriak, mobilizatutako baliabide motak); eta eragina izan duten lurraldea.

Sustapen-neurrien azterketaren dimentsioak

Aurtengo aplikazio zehatzarekin zein 2019-2022ko ikuspegi orokorrarekin lotutako sustapen-ekintzen deskribapena egiteko lau dimentsiotan oinarritu gara; horiek bat datoz neurri bakoitzaren gainean emandako informazioarekin:

1. **KATEGORIAK:** sustapen-ekintzen **banaketa** zehazten du, neurriak sailkatzeko erabili diren **kategorien eta azpitaldeen arabera**⁴.
2. **ERAGILEAK:** eragileek sustapen-ekintzetan **duten pisua** zehazten du.
3. **LURRALDEAK:** sustapen-ekintzak **lurraldeen artean nola banatuta dauden** zehazten du, eta arreta berezia jartzen die hiru Lurralde Historikoei.
4. **HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEAK:** sustapen-ekintzak EHSSko erakundeen artean nola **banatzen** diren zehazten du, erakunde horien ezaugarri anitzei arreta jarrita.

Identifikatutako **sustapen-neurriak** kategoria eta moten arabera erregistratu dira. Neurri bat, dituen ezaugarriengatik, kategoria batean baino gehiagotan sailka daitekeen ezohiko kasuetan, neurriaren helburuarekin ongien bat datorren kategorian erregistratu dugu, kasu bakoitzean.

Identifikatutako eragile bakoitzaren jatorrizko lurraldea erregistratu dugu, irizpide hauei jarraituta. **Eragile pribatuen kasuan**, egoitza fiskala edo soziala⁵ kokatuta dagoen Lurralde Historikoa erregistratu dugu. EAetik kanpoko erakundeak “Estatua” lurralde-kategorian jaso ditugu. **Eragile publikoen kasuan**, administratiboki dagokien lurraldea erregistratu dugu.

Eragileen sustapen-ekintzen gaineko datuak honela agertzen dira: a) **sektoreka** (publikoa/privatua), sektore bakoitzeko eragileek bultzatutako neurriak multzokatuta; b) **motaren** arabera, neurriak sektore bakoitzean erabilitako tipologia espezifikoaren arabera multzokatuta.

Neurriei dagokien lurraldea erregistratzeko, neurri horiek **zuzenduta dauden edo eragina duten lurralde eremu administratiboa** (tokikoa, forala, autonomikoa...) hartu dugu kontuan Normalean bat etortzen da neurria bultzatzen duen eragilearen lurraldearekin, baina hala gertatzen ez denean⁶, irizpide bera mantentzen da, hau da, neurriak eragina

⁴ Informazio gehiagorako, kontsultatu Sustapen-neurrien kontzeptualizazioa eta sailkapena.

⁵ Egoitza fiskala edo egoitza soziala. EAEko eragile pribatuen kasuan, dagokion Lurralde Historikoa erregistratu dugu egoitza soziala edo egoitza fiskala. EAetik kanpoko eragile pribatuak “Estatua” lurralde-kategorian jaso ditugu, orokorrean.

⁶ Adibidez, EAEko Administrazio Orokorrak bultzatzen dituen sustapen-neurriak, ezaugarri hauek dituztenak: (a) Lurralde Historiko batean dute eragina edo aplikatzen dira, espezifiki; (b) jarduera Lurralde Historiko bakar batean garatzen duten EHSSko erakundeei zuzenduta daude; (c) jarduera Lurralde Historiko batean baino gehiagotan garatzen duten baina lurralde bakar batean garatzen diren proiektuak, programak, jarduerak, etab. babesteko helburua duten EHSSko erakundeei zuzenduta daude.

duen lurraldean erregistratzen da, eta ez bultzatzen duen eragilearen lurraldean. Honako hau da administrazio mailako lurralde eremuaren tipifikazioa: tokikoa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Euskadi, Estatua, Europar Batasuna.

Lurraldeen arabera sustapen-ekintzen datuak honela erakusten dira:

- a. **Lurralde eremuen** arabera. Lurralde eremu administratibo bakoitzaren datuak eskaintzen dira, **sustapen-ekintzak eremu horietan nola banatzen diren ezagutzeko helburuz.**
- b. **Lurralde Historikoen** arabera: espezifikoki lurralde historiko bakoitzean eragina duten neurrien datuak bakarrik eskaintzen dira, **haitetako bakoitzean sustapen-ekintzak identifikatzeko** helburuarekin. Kasu hauetan, dagokion lurraldeko udalek eta mankomunitateek bultzatutako neurriak batzen dira lurralde bakoitzera.⁷

EHSSko erakunde hartzaileen arabera sustapen-ekintzak honako aldagaien arabera erregistratu ditugu:

- erakundearen **izaera juridikoa**;
- **neurria** (diru-sarreraren bolumenaren arabera);
- jarduera **arloa**.

Laburbilduz, txosten honetan identifikatutako neurri bakoitzaren kasuan, honako informazioa dugu.⁸

<i>Sustapen-neurriaren izena</i>	
Kategoria	Kategoriaren izena
	Neurri mota
Eragile bultzatzailea	Eragile bultzatzailearen sektorea
	Eragile bultzatzaile mota
Lurraldea	Neurria zuzentzen den edo eragina duen lurralde eremu administratibo zehatza
Erakunde hartzaileak	Erakundearen izaera juridikoa
	Erakundearen tamaina
	Erakundearen jarduera esparrua

⁷ Batuketatik kanpo utzi ditugu EAEko (lurralde historiko bateko EHSSko erakundeei, espezifikoki, zuzentzen badira salbu), Estatuko eta Europar Batasuneko Administrazio Orokorrek bultzatutako neurriak, baita azkeneko bi lurralde eremu horietako eragile pribatuek bultzatutako neurriak ere.

⁸ Aldagai hauen (izaera juridikoa, esparrua eta abar) gaineko informaziorik ez dagoenean edo ondorioztatu ezin denean, “zehaztu gabe” kontzeptuarekin erregistratzen da. Neurriak edozein izaera juridikotako, jarduera arlotako eta abarretako erakundeei zuzenduta daudenean, “zehaztugabea” izenarekin erregistratzen dira. “Tamaina” aldagaien kasuan, “Elkarte Txiki eta Ertainak” tipologia (haien diru-sarreraren bolumenaren arabera txikiak edo ertainak diren erakundeak -hau da, 300.000 € baino gutxiagoko sarrera-bolumena dutenak) erregistratu dugu, identifikatutako neurria tamaina horretako erakundeei zuzentzen bazaie, berariaz edo espezifikoki.



EAEko ikastetxeek 2022an bultzatutako sustapen-ekintzaren sistematizazioa

Zer eragile berri gehitu dira?


Ikastetxeek hezkuntzaren esparruan eta eragile sustatzaile gisa duten garrantzia egiaztatu ondoren, orain arte egindako txostenek ez zuten ikastetxeen garrantzia osorik landu. Horrek ez du esan nahi aurreko edizioetan ikastetxeetatik etorritako sustapen-neurriak erregistratu ez denik, baizik eta horien artean bilaketa zehatzik ez dela egin. Arrazoi hori dela eta, txostenak EAEko ikastetxeek EHSS sustatzen betetzen duten rola sendotu nahi du eta, zehazki, sustapeneko eragileen datu-basera EAEko lehen eta bigarren mailetakako ikastetxeak gehitu nahi ditu.

Eragile sustatzaileak, egoitza sozialaren arabera

Lehen aipatu dugun moduan, txostenaren IV. edizio hau prestatu aurretik, batez ere 2019 eta 2020 urteetan bideratutako sustapen-neurriak zituzten ikastetxeen erregistroak jasota zeuden. Azken txosten horretan, 52 ikastetxe berri sartu dira datu-basean eta guztira, hezkuntza-arloko 88 eragile izan dira. Eragile horiek dira azken hiru urteotan EHSS sustatzeko neurriak bultzatu dituztenak.

Identifikatutako 2 ikastetxe berritatik bat Bizkaiko lurralde historikoan kokatuta dago. Neurri batean, EAE osoan lurralde horrek duen biztanleria-proporzioari lotuta dago hori eta EHSSko sustapen-neurriak bultzatzen ikastetxeek betetzen duten rol horren zantzu batzuk erakusten dizkigu. Beste bi lurralde historikoen populazio mailako proportzioarekin bat etorrita, Gipuzkoa dago bigarren postuan. Izan ere, gehitutako erregistro berrien % 31,4 dira bertakoak. Eta, azkenik, Arabako lurralde historikoan daude identifikatutako ikastetxeen % 19,6.


1. grafikoa. Identifikatutako ikastetxe berriak, lurralde historikoaren arabera. %. 2023.



Nolakoak dira bultzatutako sustapen-neurriak?

Identifikatutako neurriak kategorien arabera

Eragile sustatzaile berriek bultzatutako **133 neurri** identifikatu dira guztira eta hasiera batean aurrez ikusitako 15 kategoriatatik 4tan pilatu dira. Aurreko txostenetan ez bezala, sustapen-ekintza batez ere ***EHSSren*** eta erakunde eta sareek aurrera eramandako jardueraren (88 neurri) ***ezagutzan eta aitortzan*** oinarritu da. Horiek bakarrik, bere horretan, IV. txosten honetan identifikatutako neurrien % 66,2 osatzen dute. Neurri horien bidez, EHSSko erakundeek eta sareek, ikastetxeen heziketa-lanarekin bat etorrita, egiten duten lanaren, jardueraren, ibilbidearen eta abarren berri eman nahi da.

2. *grafikoa*. Identifikatutako neurri berriak kategorien arabera %. 2022.

Hala ere, ez dira ahaztu behar ikastetxeen jarduerarekin zerikusia duten eta EHSSren ezagutzarekin eta aitortzarekin lotura eksklusiboa ez duten gainerako sustapen-neurriak. Horien maiztasuna handixeagoa edo txikixeagoa izan daiteke, baina garrantzi kualitatibo handia dute, bultzada nabarmena ematen baitiote ikastetxeen inguruko erakundeek jarduerari:

- a. EHSSko erakundeek eta sareek jarduerari finantzatzera bideratutako 28 neurri (% 21,1) eta horiek kudeatzeko edo gaitzeko beste laguntza batzuk.
- b. 17 neurri (% 12,8) ***boluntariotza eta asoziazionismoa sustatzera*** bideratzen dira boluntario edo bazkide gisa emakumeen, gazteen, adinekoen eta abarren parte-hartzea sustatzeko tresna eta ekintzen bidez.

Identifikatutako neurriak moten arabera

EHSSLren 24.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, jarraian mobilizatzen dituzten baliabide-moten arabera identifikatutako neurrien banaketa jasoko dugu. Hala, lau mota handiren arabera jaso ditugu neurriak:


1. **Baliabide ekonomikoak:** EHSSko erakunde eta sare hartzaileen egitasmoak garatzeko baliabide ekonomikoak mobilizatzen dituzten sustapen-ekintzak (jarduerari, proiektuari, programari... bat finantzatzeko edo gastuak ordaintzeko).

2. **Giza baliabideak:** langileak mobilizatzen dituzten sustapen ekintzak dira, eta hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sare hartzailen zerbitzura jartzen dituzte borondatez jardueraren bat garatzeko edo proiektu edo programaren bat sustatzeko beraien esperientzia, ezagutza profesionala edo denbora.
3. **Baliabide sozialak:** entitate edo erakunde eta sare hartzailakoak ez diren beste erakunde eta/edo pertsonen mobilizazioa eta/edo parte-hartzea dakarten sustapen-ekintzak eta hainbat modura azken hartzaille horiei laguntzen dietenak.
4. **Zerbitzuak, baliabide teknikoak eta/edo materialak:** EHSSko erakunde eta sare hartzailentzako egun dauden zerbitzuak edo modu espezifikoan egokitutakoak eskaintzeko eta/edo baliabide teknikoak eta/edo materialak mobilizatzeko sustapen-ekintzak.

Eskuragarri dagoen informazioarekin, identifikatutako 133 sustapen-neurriek, neurri handiagoan edo txikiagoan, bitarteko sozialak, ekonomikoak, teknikoak eta/edo materialak edo giza baliabideak mobilizatzea eskatu dute, honela:

- a. 52 neurrik (% 39,1) EHSS sustatzeko helburuarekin eragile sustatzaileetatik kanpoko **pertsonen edo pertsona-taldeen parte-hartzea** mobilizatzea ekarri dute. Hezkuntza arloan hedatuen dagoen baliabide mota osatzen dute.
- b. 35 neurritan **zerbitzuen** eskaintza edo eragile sustatzaileen **baliabide tekniko eta/edo materialen** mobilizazioa barne hartzen da, eta hori da gehien eskaintzen den bigarren baliabide mota (% 26,3).
- c. 28 neurriren (% 21,1) ondorioz, eragile sustatzaileek **izaera ekonomikoko baliabideak** mobilizatu dituzte.
- d. Amaitzeko 18 neurrik (% 13,5) zuzenean erakunde sustatzaileek emandako **giza baliabideak** barne hartzen dituzte.

4. *grafikoa.* Baliabide motaren arabera identifikatutako neurri berriak. %.




Zer lurraldetan dute eragina?

Hezkuntza arloko eragileek bultzatutako ekintzarekin lotuta, EHSS sustatzeko ekintzak hiru lurralde historikoetan izan du eragina.

Hiru lurraldeen artean, Bizkaia da neurri kopuru handiagoak (78) eragina izan duena, logikoa den moduan, identifikatutako eragile berrien kopuru handiena duelako, eta, hortaz, ehunekorik altuena (% 58,2) izan du. Gipuzkoa da EHSSko erakunde gehien pilatzen diren bigarren lurralde historikoa eta postu berean dago identifikatutako neurri berriei dagokienez: 39 izan dira (% 29,1). Azkenik, hirugarren postuan dago Araba 17 neurriekin (% 12,7). Hain zuzen ere, lurralde horrek proportzio demografiko eta EHSSko erakundeen artean bolumen txikiagoak ditu.

5. grafikoa. Eragina duten lurralde historikoaren arabera identifikatutako neurri berriak. Erantzun aniztuna %. 2022.



Nola sustatzen dituzte? Eragile askoren arteko elkarlana, sustapen-neurrien bultzadan

Gaur egun, ez da oso ohikoa EHSSren aldeko sustapen-neurriak bultzatzeko eragile ugariren arteko lankidetza. Ikastetxeen sustapen-neurriei dagokienez, ez da halakorik egiten. VI. txosten honen kasuan, ez da lankidetzarik topatu identifikatutako 133 neurriak martxan jartzeko garaian. Horrenbestez, azterketatik kanpo geratzen dira sektore publikoarekin, pribatuarekin eta sozialarekin lotutako lankidetza moduak.

Nori zuzenduta daude?

EHSSko 84 erakundeek eta sareek zuzeneko onura jaso dute 2022an hezkuntza arloko erakundeek Euskadin bultzatutako sustapen-ekintzatik. Jarraian, sustapen-ekintza hau jasoko duten erakundeen emaitzak azaltzen dira, haien forma juridikoaren, tamainaren eta jarduera esparru nagusiaren arabera. Garrantzitsua da azpimarratzea, identifikatutako sustapen-neurriak arakatu eta horien jarraipena egin dugun arren, erakunde hartzaileak identifikatzeko lana zaila izan dela, batzuetan ez baita sustapen-neurrien onuradun izan diren erakundeen informazioa modu publikoan eskaini.

Erakunde onuraduna eta erakunde onuradun horien forma juridikoa ezagutzen ditugun 122 neurri horietatik, 3 neurritatik 2 elkarteei zuzenduta daude (% 66,4, 81 neurri). Baina elkarteen forma juridikoak sektorean duen proportzioarekin alderatzen badugu, proportzio hori elkarteei zuzendutako neurrien nagusitasunarekin ez datorrela bat ikusiko dugu. EHSSren 2021eko Barometroak biltzen dituen datuen arabera, sektorearen % 90,3 elkarteek osatzen dute eta fundazioena da sektorean bigarren figura juridiko ohikoena (% 5,3). Hitz gutxitan esanda, sektorean duten proportzioarekin lotuta, fundazioak dira sustapen-neurri gehien jaso dituztenak; zehazki, neurri horien % 15,6 (19 neurri).

Gainerako neurriak beste figura juridiko batzuen artean banatu dira (% 18,0, 22 neurri): ekimen sozialeko kooperatibak, kongregazio erlijiosoa eta abar.


Jarraian, erakunde onuradunek zein esparrutan jarduten duten adierazten duen informazioa aurkezten da. Gizarte-zerbitzuen arloa da sustapen-ekintzen gutxi gorabehera erdia (% 46,8) biltzen duen esparrua (58 neurri arlo horretako erakundeei eta sareei bideratuta daude). Beste erdia, aldiz, honela banatzen da gainerako esparruen artean: Garapen Nazioarteko Lankidetzak (% 27,4, 34 neurri); Osasun arloa (% 8,9, 11 neurri); Soziala-Zeharkakoa (% 6,5, 8 neurri); Beste batzuk (% 4,8, 6 neurri), Enplegua (% 2,4, 3 neurri); eta Aisialdia (% 1,6, 2 neurri).

Arloak	IMP2023	2021eko barometroa
Soziala-zeharkakoa	6,5	37,1
Gizarte-zerbitzuak	46,8	22,5
Garapenerako lankidetzak	27,4	13,6
Aisialdia	1,6	11,9
Osasuna	8,9	9,4
Enplegua	2,4	3,8
Beste batzuk	4,8	1,7
Zehaztu gabe	1,6	0,0

Aurreko datuak **arlo bakoitzeko erakundeek EHSSko erakunde guztiekiko duten proportzioarekin** alderatzen baditugu (2021eko Barometroa), ikus dezakegu gizarte-zerbitzuen arloko bultzadaren gehiegizko dimentsionamendua dela eta (EHSS osoan duen proportzioa ia bi halako da), gainerako esparruetan lan egiten duten erakundeei zuzendutako sustapen-ekintza sektorean duten proportzioaren azpitik dagoela. Salbuespen bakarra da garapenerako nazioarteko lankidetzak arloan lan egiten duten erakundeei bideratutako erakundeena. Hori oso nabarmena da, bereziki, Gizarte-Zeharkako edo Aisialdiko esparruetan; izan ere, sektore horretan duten pisua baino askoz ere ehuneko txikiagoan jasotzen dute laguntza.

Gizarte Zerbitzuen eremuek EHSSn duten pisuari dagokionez, babes handiagoa eta gainerako eremuek jasotako laguntza txikiagoa bat datoz 2020an egindako sustapen-neurriei buruzko txostenean adierazitakoarekin, ehuneko desberdinekin.⁹

18. grafikoa. Sustapen-neurriak, erakunde hartzaileen arabera. %. 2022.



⁹ Hemen ikus daiteke (46-47. or): https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/IMPTSSE-2019_es.pdf


Erakundeek bolumen ekonomikoari dagokionez duten neurria, askotan, identifikatzeko zaila izaten den aldagaia da. Hori dela eta, sustapen-ekintza hau jasoko duten erakundeen emaitzei dagokienez, kontuan izan behar dugu identifikatutako 122 erakunde onuradunen erdietan baino gehiagotan ez dugula tamainari buruzko informaziorik.¹⁰

Hori kontuan hartuta, informazioa jaso dugun 48 neurrietatik, % 31,3 oso erakunde handietara dago; hau da, 1,5 milioi euro baino gehiagoko bolumen ekonomikoa dutenetara (15 neurri). Erakunde handiei zuzendutako neurrien % 27,1ekin batera (300.000 eta 1.500.000 € arteko bolumen ekonomikoarekin), horiek guztiek bultzada egiteko botere handia dute erakunde txiki eta ertainekin alderatzen baditugu. Hain zuzen ere, erakunde onuradun txikien neurriak % 10 baino gutxiagokoak dira (4 neurri). Gainerako 16 neurriak (% 31,2) erakunde ertainen artean (haien tamainaren arabera) banatuta daude.

Erakunde onuradunen tamaina	IMP2023	2021eko barometroa
Erakunde oso txikiak	2,1	29,2
Erakunde txikiak	6,3	19,6
Erakunde ertainak	33,3	29,3
Erakunde handiak	27,1	14,5
Erakunde oso handiak	31,3	7,5

Paradoxa dirudien arren, EHSSren % 50 erakunde txikiek edo oso txikiek osatzen duten arren, gure informazioaren arabera, sustapen-neurrien % 8,4ren onuradunak bakarrik dira. Aldiz, erakunde handiek eta oso handiek biltzen dituzte neurri horien erdia baino gehiago (eta sektorearen % 22 ordezkatzeko dute). Itxuraz, erakunde handienak eta lurraldean presentzia handiena dutenak dira erakartzeko ahalmen handiena sortzen dutenak. Dena den, baliteke sustapen-neurriak bilatzeko eta identifikatzeko prozesuak ere nolabaiteko eragina izatea eta, ondorioz, enpresa onuradunak bere burua ezagutarazi duen kasuak bakarrik bistaratu izana. Hori ohikoagoa izaten da erakunde handienetan eta baliabide gehien dituztenetan. Hori dela eta, datuak kontuz aztertu beharrekoak dira.

19. grafikoa. Sustapen-neurriak, erakunde onuradunen tamainaren arabera. % 2022.



¹⁰ EHSSko erakundeek kudeatzen duten bolumen ekonomikoaren datua EHSSren Barometroaren azken edizioan edo Liburu Zurian parte hartu badute bakarrik ezagutzen da.



2019-2022 urteen artean bultzatutako sustapen-ekintzaren sistematizazioa


Zer eragilek bultzatzen dituzte sustapen-neurriak?

Azken lau urteotan egindako emaitzek erakusten dutenez (2023an egindako txosten honek barne), EHSSren aldeko neurrien sustatzaile gisa identifikatutako eragileen aniztasuna handia da. Maila guztietako administrazio publikoetako eragileak eta esparru pribatuan parte hartzen duten eragileak identifikatu dira (hala nola enpresak, enpresa-fundazioak edo enpresa-erakundeak). Beste nolabait esanda, EHSS sustatzeko neurrien IV. txostenak EHSSren aldeko neurriekin lotutako **839 eragile sustatzaile** biltzen ditu¹¹. Eragileen lagin hori 2019 eta 2022 urteen artean egindako bilketa- eta sistematizazio-lanaren emaitza da.


Eragile sustatzaileak, haien jarduera sektorearen arabera

Identifikatutako 839 eragile sustatzaileen artean, era askotako erakundeak daude. Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da beren jarduera arlo pribatuan garatzen duten erakundeen presentzia sektore publikoko erakundeena baino handiagoa dela (aurrez ikus genezakeen moduan). Izan ere, identifikatutako 5 eragile sustatzailetik ia 4 (% 78,4) dira sektore pribatukoak.

6. grafikoa. Eragile sustatzaileak, haien jarduera sektorearen arabera.



6. grafikoa. Eragile sustatzaileak, jarduera sektore pribatuaren arabera. %. 2019-




Identifikatutako sektore pribatuko 658 eragile gehienek (% 90,3) ekonomia eta finantza arloan garatzen dute beren jarduera eta beste jarduera esparru batzuetan lan egiten duten eragileen presentzia txikia da: hezkuntza (% 6,2); komunikazioa (% 2,1); kirola (% 0,8); gizartea (% 0,5); eta kultura (% 0,2). Esparru ekonomiko-finantzarioaren nagusitasun hori nabarmen baldintzatzen du Sustapeneko neurrien II. txostenean (2021) egindako eragileen bilaketa- eta sistematizazio-lanak. Txosten hark enpresen sektorea jorratzen zuen modu eskusiboan.

¹¹ Baliteke zifra hori aurreko txostenetan identifikatutako eragileen batura baino txikiagoa izatea; izan ere, eragile horietako batzuk txosten batean baino gehiagoan azaltzen dira. Kasu gehienetan, 2019ko eta 2020ko txostenean azaltzen diren enpresak dira.

Bestalde, sektore publikoko 181 eragileek¹² gutxi gorabehera 5etik 1 biltzen dute (zehatzago esanda, % kopuru handiena biltzen duten eragile publikoak eta identifikatutako eragile kopurua 126koa izan da (% 69,6). Gehienak EAEko hiru lurralde historikoetako udalak dira. Bestalde, guztira 27 agente daude EAEko Administrazio Orokorrean (% 14,9), eta, ondoren, hiru foru-administrazioetako bateko 20 agente inguru (% 11,0). Azkenik, Estatuko Administrazio Orokorreko 7 erakunde identifikatu dira sustapen-neurrien bultzatzaile gisa (% 3,9) eta Europar Batasuneko 1 (% 0,6). Administrazio publikoez gain, 12 ikastetxe publikok ere garrantzi handia dute datuetan; izan ere, eragile sustatzaileen % 6,6 dira.


Eragile sustatzaileak, egoitza sozialaren arabera

8. grafikoa. Eragile sustatzaileak egoitza sozialaren arabera. %. 2019-



Identifikatutako eragile sustatzaileen % 84 hiru lurralde historikoetako batean egoitza soziala duten erakunde publiko eta pribatuak dira, eta, zehazki, honela daude banatuta: 294 (% 35) egoitza Bizkaian duten eragileak dira; 257 (% 30,6) Gipuzkoako eragileak, eta 141 (% 16,8) Arabakoak. Horiei guztiei, lurralde historiko batean baino gehiagoan ezarrita dauden 16 eragile sustatzaile (% 2,2) gehitu behar zaizkie. Gainerako 131k (% 15,6) egoitza EAetik kanpo duten eragileak dira (enpresa handiak edo Estatuko administrazioak batez ere), baina gure erkidegoan zerbitzuak edo lokalak dituztenak.

7. grafikoa. Eragile sustatzaileak, jardueraren sektore publikoaren arabera. %. 2019-2022.



¹² Baliteke zifra hori lehen eta hirugarren txostenetan identifikatutako eragile publikoen batura baino handiagoa izatea esparru publikoko eragile sustatzaile batzuen kasuan izen-aldaketa gertatu delako.

Eragile sustatzaileen banaketa, jarduera ekonomikoaren arabera

Aurrez aipatutako edozein sektoretako eta beren jarduera ekonomikoari buruzko informazioa dugun 838 eragile sustatzaileak (guztien % 99) Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen jasotzen diren jarduera ekonomikoen 21 taldetatik 18tan banatuta daude.

Administrazio publikoa (181) da nagusi jarduera ekonomikoen taldeei dagokienez eta bere horretan 5 eragile sustatzailetatik gutxi gorabehera 1 biltzen du (% 21,6).

Handizkako/txikizkako merkataritzak (147) eta manufaktura-industriak (123) dira 3 eragile sustatzailetatik 1.

Distantzia handira eta antzeko zifrekin guztien artean daude jarduera sektore garrantzitsuetako erakundeak, hala hezkuntza arlokoak (88 eragile, % 10,5), profesionalak, zientzialariak eta teknikariak biltzen dituen (ikerketa, aholkularitza, enpresa-kudeaketa, etab. 53 eragile, % 6,3), finantza eta aseguruen arlokoak (45 eragile, % 5,4), edo finantza-jarduerekin eta aseguruekin (45 eragile, % 5,4) lotura dutenak. Gainerako eragile sustatzaileak (164 eragile) identifikatutako sustapen-ekintzari dagokionez presentzia eskasa duten beste 13 jarduera sektoretakoak dira.

Nolakoak dira bultzatutako sustapen-neurriak?

Identifikatutako neurriak kategorien arabera


2019-2022 aldian, eragile sustatzaile publiko eta pribatuek bultzatutako **2.492 neurri**¹³ identifikatu dira eta hasiera batean aurrez ikusitako 15 kategoriatatik 12tan banatu ditugu. Lehen eta bigarren txostenetan gertatu zen moduan, sustapen-ekintza EHSSko erakundearen eta sarearen jarduerarekin lotutako **finantzaketan** oinarritzen da batez ere (1.894 neurri) eta bere horretan, azken lau urte hauetan identifikatutako neurri guztien % 76 biltzen ditu.

Gráfico 9. Agentes promotores según actividad económica. %. 2019-2022.



10. grafikoa. Sustapen-neurriak, kategorien arabera. %. 2019-2022.

¹³ Txostenean jasotako neurrien guztizko kopurua aurreko urteko txosten bakoitzean (2020 eta 2021) identifikatutako neurriak batuta ateratzen dena baino handiagoa da. Izan ere, txosten horiek aipatutako urteko sustapen-neurriei buruzko informazioa bakarrik jaso dute, eta kanpoan utzi dira txostena egin aurretik edo ondoren sartu diren beste batzuk.



Dena den, EHSSren finantzaketarekin zerikusirik ez duten sustapeneko 598 neurri daude guztira. Horiek guztiek, finantzaketa-neurrien garrantzi kuantitatiboaz harago joanda, garrantzi kualitatibo handia dute. Gainerako kategoriatan banaketa ezberdina dute horiek:

- 142 neurri (% 5,7) **azpiegiturak** eskaintzera bideratuta daude, ez soilik jarduerak egiteko espazioei, lokalei eta bestelako ekipamenduei dagokienez, baita erakunde eta sare hartzaileen jarduerarako baliabide materialak eta beharrezko zerbitzu espezifikoak hornitzeko ere.
- 129 neurriren helburua (% 5,2) EHSSren **ezagutza eta aitortza** lortzea da; hau da, EHSSko erakunde eta sareen lana, jarduera, ibilbidea eta abarrak ezagutaraztea edo horiei aitortza eskaintzea.
- 105 neurri (% 4,2) bat datoz **boluntarioriarekin eta asoziazionismoarekin**, hein handi batean EHSSko erakunde eta sareetako elkarteetan lanean ari diren pertsonen boluntarioria korporatiboko jarduerekin lotuta.
- 86 neurriren (% 3,5) xedea **antolaketa eta kudeaketa** indartzea da. Neurri handi batean, CEBEKe Sareen Sarearekin lankidetzan bultzatutako EHSSko erakundeei zuzendutako pro bono programaren hiru edizioetan enpresa arloko eragileek izandako parte-hartzeari dagozkio.

- e. 53 neurriren helburua (% 2,1) da **beste sektore, erakunde eta mugimendu sozial batzuekin batera lan egitea**. Hitz gutxitan esanda, EHSSko erakundeek eta sareek, eta sektore publikoko beste sektore batzuen arteko elkarlana errazten edo sustatzen duten jarduerak dira.
- f. 36 neurri (% 1,4) EHSSko erakundeek **fiskalitate** arloan eskaintzen dituzten onurak. Kasu askotan, horiek guztiak EHSSko erakundeei zuzendutako zerga-onurak arautzen dituen ordenantza edo araudi fiskalean jasotako ekintzekin lotuta daude.
- g. 30 neurri (% 1,2) **sektore baitako** lankidetzak errazten dute EHSSko erakundeetan. Kasu gehienetan, lankidetzak horizontala eta sareko lana bultzatzera bideratutako ekintzak dira.
- h. Azkenik, erakusgarritasun txikiarekin, 10 neurri **koherentzia indartzera** bideratuta daude, 4 **funtzioen oreka** bermatzera, 2 **sektore publikoarekin lotutako lankidetzara**, eta **sustapeneko estrategia espezifiko** 1 ere badago.

Finantzaketa-neurriek identifikatutako sustapen-neurri guztien artean duten garrantziak **deskribapen espezifiko** bat behar du, jarraian eskainiko duguna. Lehen aipatu bezala, 1894 dira finantzaketa-neurriak.

Identifikatutako finantzaketa-neurri gehienak (% 95,6) bat datoz **laguntzekin eta dirulaguntzekin** (1.810). Azken horiek ez ezik, EHSSko erakundeei zuzendutako ekonomikoa emateko beste formula batzuk ere sartzen dira hemen, hala nola dohaintzak, babes- eta mezenasgo-ekintzak, eta abar.

Gainerako finantzaketa-neurriak hainbat azpi-motatan banatuta daude, ia denek garrantzi kuantitatibo eskasa dute aurreko azpi-motarekin alderatuta:

Finantzaketa-neurrien azpikategoriak	Absolutuak	%
Laguntzak eta dirulaguntzak	1.810	% 95,6
Eskaintzak eta deskontuak zerbitzuetan	46	% 2,4
Parte-hartzea sustatzeko tresnak	19	% 1,0
Kreditua eskuratzeko mekanismoak	13	% 0,7
Sariak (finantzaketa)	6	% 0,3


- a. 46 neurri (% 2,4) **zerbitzuetako eskaintza eta deskontuenak** dira. Hein handi batean, diruzkoak ez diren dohaintzak dira, bai eta EHSSko erakunde eta sare hartzaileetako bazkideei zuzendutako eskaintzak eta deskontuak ere.
- b. Erakundeek finantzaketa **herritarren, kontsumitzaileen eta langileen parte-hartzea sustatzeko tresnei** dagozkien 19 neurri daude (% 1), batez ere horretarako diseinatutako finantza-produktuen edo -zerbitzuen bitartez.
- c. 13 neurri (% 0,7) finantza-erakundeek sustatutako **krediturako sarbiderako mekanismoak** dira. Mekanismo horiek EHSSko erakundeei ahalbidetzen die aurrerapenetara eta kredituetara abantailazko baldintzetan sartzen.
- d. Gainerako 6 neurriak eskudirutan jasotako **sariei** (% 0,3) dagozkie.

Identifikatutako neurriak moten arabera

EHSSLren 24.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, jarraian erakunde sustatzaileek mobilizatzen dituzten baliabide-moten arabera identifikatutako neurrien banaketa jasoko dugu. Hala, lau mota nagusitan sailkatu ditugu neurriak:

1. **Baliabide ekonomikoak:** Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde eta sare hartzailleen egitasmoak garatzeko baliabide ekonomikoak mobilizatzen dituzten sustapen-ekintzak (jarduera, proiektu, programa... bat finantzatzeko edo gastuak ordaintzeko).
2. **Giza baliabideak:** langileak mobilizatzen dituzten sustapen ekintzak dira, eta hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sare hartzailleen zerbitzura jartzen dituzte borondatez jardueraren bat garatzeko edo proiektu edo programaren bat sustatzeko beraien esperientzia, ezagutza profesionala edo denbora.
3. **Baliabide sozialak:** entitate edo erakunde eta sare hartzaillekoak ez diren beste erakunde eta/edo pertsonen mobilizazioa eta/edo parte-hartzea dakarten sustapen-ekintzak eta hainbat modutara azken hartzaile horiei laguntzen dietenak.
4. **Zerbitzuak, baliabide teknikoak eta/edo materialak:** EHSSko erakunde eta sare hartzailleentzako egun dauden zerbitzuak edo modu espezifikoan egokitutakoak eskaintzeko eta/edo baliabide teknikoak eta/edo materialak mobilizatzeako sustapen-ekintzak.

11. grafikoa. Sustapen-neurriak, baliabide moten arabera. Erantzun aniztuna %. 2019-2022.



Identifikatutako neurriei lotuta eskuragarri dagoen informazioaren arabera, identifikatutako sustapen-ekintzen % 98,2k (2.447 neurri) aipatutako baliabide bat edo batzuk mobilizatu dituzte, banaketa honen arabera:

- a. 1.936 neurrik eragile sustatzaileen **baliabide ekonomikoen** mobilizazioa dakarte eta horiek dira ohikoenak; izan ere, informazioa jaso dugun neurrien hiru laurden (% 77,7) dira era horretakoak. Ehunekoa bat dator goian ageri den neurrien kategorizazioan adierazitakoarekin, nahiz eta garrantzi nabarmen txikiagoa duen, kategorizazioan neurriaren asmoa hartzen delako kontuan (jarduera finantzatzea), eta sailkapenean, aldiz, helburu horretarako beharrezkoak diren baliabideak.
- b. 288 neurrik erakunde sustatzaileek eurek eskainitako **giza baliabideak** barneratzen dituzte zuzenean, eta horiek osatzen dute informazioa eskuragarri dugun kasuetan zabalduen dagoen bigarren neurri mota (% 11,6).
- c. 305 neurritan, eragile sustatzaileek eskainitako **zerbitzuak** edo **baliabide tekniko eta/edo materialak** jasotzen dira. Horiek osatzen dute hirugarren mota hedatuena (% 12,2).

- d. **Erakunde sustatzailearen kanpoko pertsonak edo elkarteak** barne hartzen dituzten sustapen-neurriak dira gutxien identifikatu ditugunak, 96 neurriekin (% 3,9). Identifikatutako mota horietako kasuen zati handi batean, neurriek erakunde sustatzaileetako bezeroen edo hartzaileen parte-hartzea barne hartzen dute, hainbat motatakoa: baliabide ekonomikoaren edo materialen hornikuntzan parte-hartze zuzena dute zerbitzuen (finantza-zerbitzu espezifikoaren bidezko dohaintza, adibidez), kanpainen (supermerkatu-kateetako bezeroek elikagaiak dohaintzan ematea Elikadura Bankuen kanpainen, esaterako), edo programen bitartez (bezeroek boluntario gisa parte hartzea, esaterako), besteak beste.


Baliabideak mobilizatzen dituzten neurriak, eragile sustatzaileen jardura sektorearen arabera

Neurri motaren eta jardura sektorearen araberrako banaketari erreparatuz gero, baliabideen mobilizazioan alde nabarmenak ikus ditzakegu sektore publikoko eta sektore pribatuko eragileen artean. Erreferentzia gisa, sektore publikoak identifikatutako eragile sustatzaileen % 20 inguru biltzen du, eta sektore pribatuan diharduten eragileak, aldiz, % 80 dira.


Baliabide ekonomikoak mobilizatzea eskatzen duten sustapen-neurriei dagokienez, neurri horien heren batean baino gehiagoan (% 35,1), neurri horiek sektore publikoko eragileek bultzatutakoak izaten dira (eta horien artean, udalak azpimarratu behar dira). Aldiz, baliabide ekonomikoak mobilizatuta dituzten gainerako neurriak (% 64,9) sektore pribatukoak dira (eta enpresa handiak dira protagonistak).

Aldiz, baliabideak mobilizatzen dituzten gainerako neurrietan, sektore pribatuak are protagonismo handiagoa du. Horixe gertatzen da, esate baterako, erakundearen **giza baliabideak** mobilizatzearekin lotutako neurrietan. Identifikatutako era horretako neurrien % 16,7an bakarrik da administrazio publikoa arduradun nagusia. Beste nolabait esanda, sektore pribatuko eragile sustatzaileen presentzia handitu egiten da EHSSren aldeko giza baliabideak mobilizatzen direnean.

12. *grafikoa*. Baliabide ekonomikoak mobilizatzen dituzten sustapen-neurriak, jardura sektorearen arabera. %. 2019-2022.




13. *grafikoa*. Giza baliabideak mobilizatzen dituzten sustapen-neurriak, jardura sektorearen arabera. %. 2019-2022.




Bestalde, **zerbitzu eta/edo baliabide teknikoak edo materialak** mobilizatzen dituzten neurrien banaketari dagokionez, are txikiagoa da sektore publikoaren eta pribatuaren arteko oreka. 10 neurritatik 9 sektore pribatuko eragile sustatzaileetatik eratorritakoak dira. Gainerako % 9,5, neurri handi batean, espazioak, lokalak edo ekipamenduak lagata EHSSren ekintza sustatzen duten erakunde publikoak dira.

15. *grafikoa*. Erakundeaz kanpoko pertsonak mobilizatzen dituzten sustapen-neurriak, jarduera sektorearen arabera. %. 2019-2022.



Azkenik, antzeko zerbait gertatzen da EHSS sustatzeko garaian erakundetik kanpoko **pertsonak** mobilizatzeko gaitasuna dutenekin (gehienetan, enpresa handiak eta hezkuntza arloko eragileak dira). Eragile sustatzaileen % 88,5 sektore pribatuan daude; aldiz, sektore publikokoen ehunekoa % 11,5koa da.

14. *grafikoa*. Baliabide teknikoak edo materialak mobilizatzen dituzten sustapen-neurriak, jarduera sektorearen arabera. %. 2019-2022.




Zer lurraldetan dute eragina?

EHSSren sustapen-ekintzak lurraldeko eremu desberdinetan du eragina.

Orain arte sustatutako neurrien ehuneko oso altu batek (% 84,9) eragina du hiru lurralde historikoetakoren batean. Hiru lurraldeen artean, Bizkaia da neurri gehienek eragina duten lurraldea (951), logikoa den moduan EAE osoko pisu demografikorik handiena duen lurraldea, eta, hortaz, ehunekorik altuena duena (% 38,2). Horrekin lotuta, gogorarazi beharrekoa da Bizkaia dela EHSSko erakunde gehien dituen lurralde historikoa (zehazki, 2.341 erakunde, 2021eko Barometroaren datuen arabera). Jarraian, Gipuzkoa dator 608 neurriekin (% 24,4) eta, azkenik, Araba (556 neurri, % 22,3).

16. grafikoa. Sustapen-neurriak, eragina duten lurraldearen arabera. %. 2019-2022.



Bestalde, lurralde historiko batean ere eragin espezifikorik ez duten neurriak gainerako % 2,1 soilik dira. Estatu osoko hirugarren sektore sozialari zuzendutakoak. Bistakoa denez, EAEn egoitza edo establezimenduak dituzten Estatuko eragileek bultzatutakoak dira eta % 12,8 dira (318 neurri).


Gainera, Estatutik kanpo eragina duten EHSSko erakundeei zuzendutako neurriek garrantzi eskasa dute sustapen-ekintza osoan. Kasu guztietan, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko programei, proiektuei edo erakundeen jarduerari laguntzeko neurriak dira.

Nola sustatzen dituzte? Eragile askoren arteko elkarlana, sustapen-neurrien bultzadan

Identifikatutako neurri gehienak esku hartzen duten erakundeen banakako ekimenetik sortu diren arren, 43 neurri (% 1,8) enpresa sustatzaileak eragile batekin baino gehiagorekin antolatutako **lankidetzaren** bitartez ezarri edo jarri dira abian.

- Gehienak (33 neurri) EHSSko erakundeen, enpresen eta erakunde publikoen parte-hartzeari esker bultzatu dira (lankidetzatza publikoa-pribatua-soziala).
- Zazpi neurri erakunde publikoekin eta erakunde pribatuekin elkarlanean bultzatutakoak dira (lankidetzatza publikoa-pribatua).
- Bi neurri enpresa-erakunde baten eta EHSSren sare baten arteko lankidetzari esker bultzatu dira (lankidetzatza pribatua-soziala). CEBEKe 2020 eta 2021ean Sareen Sarearekin batera sustatutako pro bono programa da.
- Azkenik, neurri bat administrazio publikoaren eta EHSSko erakunde baten arteko lankidetzari esker bultzatu da (lankidetzatza publikoa-soziala). Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila eta EUDEL partaide dituen lankidetzatza da.

17. grafikoa. Sustapen-neurriak, lankidetzatza motaren arabera. 2019-2022.



Nori zuzenduta daude?


EHSSko 316 erakundek eta sarek jaso dute zuzeneko onura azken 4 urteotan Euskadin bultzatutako sustapen-ekintzatik. Beste kasu askotan, erakunde eta sare mota oso anitzetara zuzenduta egoten dira sustapen-ekintzak, zehaztu gabe. Jarraian, sustapen-ekintza hau jasoko duten erakundeen emaitzak azaltzen dira, haien forma juridikoaren, tamainaren eta jardura esparru nagusiaren arabera. Garrantzitsua da azpimarratzea, nahiz eta identifikatutako sustapen-neurriak arakatu eta horien jarraipena egin dugun, erakunde onuradunak identifikatzeko lana zaila izan dela (are gehiago administrazio publikoaren kasuan), batzuetan ez baita laguntza horien onuradun izan diren erakundearen informazioa eskaintzen. Horregatik, gaur egun, ez dugu erregistratutako neurrien % 40en (gutxi gorabehera) onuradunak izan diren erakundeei buruzko informaziorik.

Erakunde onuraduna eta horren forma juridikoa ezagutzen dugun 1.498 neurri horietatik, 10 neurritatik 7 elkartetara zuzenduta daude (% 70,2, 1.051 neurri). Baina elkarten forma juridikoak sektorean duen proportzioarekin alderatzen badugu, proportzio hori elkartetara zuzendutako neurrien nagusitasunarekin ez datorrela bat ikusiko dugu. EHSSren 2021eko Barometroak biltzen dituen datuen arabera, sektorearen % 90,3 elkarrekin osatzen dute eta fundazioena da sektorean bigarren figura juridiko ohikoena (% 6). Hitz gutxitan esanda, sektorean duten proportzioarekin lotuta, fundazioak dira sustapen-neurri gehien jaso dituztenak; zehazki, neurri horien % 17,1 (256 neurri).

Gainerako neurriak beste figura juridiko batzuen artean banatu dira (% 12,8, 191 neurri): ekimen sozialeko kooperatibak, kongregazio erlijiosoa eta abar.

Jarraian, azken hiru urteotan sustapen-ekintza horren onuradunak izan diren erakundearen jardura esparrua jasotzen duen informazioa azaltzen da. Gizarte-zerbitzuen arloa da sustapeneko ekintzen 2/3 (% 65,7) biltzen dituztenak (981 neurri arlo horretako erakundeei eta sareei bideratuta daude). Gainerako % 34,3a, aldiz, honela banatzen da gainerako esparruen artean: Osasuna, 121 neurriekin (% 8,1) da neurrien kopuru handiena duen

18. grafikoa. Sustapen-neurriak, erakunde hartzaileen arabera. %. 2019-2022.



hurrengo esparrua; jarraian datoz soziala-zeharkakoa (% 7,6, 114 neurri), Beste batzuk (% 7,6, 114 neurri), Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza (% 6,8, 101 neurri), Enplegua (% 3,2, 48 neurri) eta Aisialdia (% 1, 15 neurri).


Arloak	IMP 2023	2021eko barometroa
Soziala-zeharkakoa	7,6	37,1
Gizarte-zerbitzuak	65,7	22,5
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza	6,8	13,6
Aisialdia	1,0	11,9
Osasuna	8,1	9,4
Enplegua	3,2	3,8
Beste batzuk	7,6	1,7

Aurreko datuak **arlo bakoitzeko erakundeek EHSSko erakunde guztiekin alderatuta duten proportzioarekin** konparatzen baditugu (2021eko Barometroa), ikus dezakegu gizarte-zerbitzuen arloko bultzadak gehiegizko garrantzia duela (EHSS osoan duen proportzioa ia hirukoiztu egiten du), eta horren ondorioz, gainerako arloetan lan egiten duten erakundeetara bideratutako sustapen-ekintza sektorean duten proportzioaren azpitik dago. Hori oso nabarmena da, bereziki, Gizarte-Zeharkako edo Aisialdiko esparruetan; izan ere, sektore horretan duten pisua baino askoz ere ehuneko txikiagoan jasotzen dute laguntza.

Gizarte Zerbitzuen eremuek EHSSn duten pisuari dagokionez, babes handiagoa eta gainerako eremuek jasotako laguntza txikiagoa bat datoz 2020an egindako sustapen-neurriei buruzko txostenean adierazitakoarekin, ehuneko desberdinekin.¹⁴.

Erakundeek bolumen ekonomikoari dagokionez duten neurria, askotan, identifikatzeko zaila izaten den aldagaia da. Hori dela eta, kontuan hartu behar da sustapen-ekintza hau jasoko duten erakundeen emaitzetan (haien tamaina kontuan hartuta), erakunde onuradunen ia erdietan ez dugula horrelako informaziorik.¹⁵ Hori kontuan hartuta, informazioa jaso dugun 799 neurrietatik, % 49,9 oso erakunde handietara bideratuta daude; hau da, 1,5 milioi euro baino gehiagoko bolumen ekonomikoa dutenetara (399 neurri). Erakunde handiei zuzendutako neurrien % 13,5ekin batera (300.000 eta 1.500.000 € arteko bolumen ekonomikoarekin), horiek guztiak bultzada egiteko botere handia dute erakunde txiki eta ertainekin alderatzen baditugu. Hain zuzen ere, neurrien onuradunak erakunde txikiak edo oso txikiak direnen kasuan, proportzio hori % 5 ingurukoa da (41 neurri). Gainerako 251 neurriak (% 31,4) erakunde ertainen artean (haien tamainaren arabera) banatuta daude.

19. grafikoa. Sustapen-neurriak, erakunde onuradunen tamainaren arabera. %. 2019-2021



¹⁴ Hemen ikus daiteke (46-47. or): https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/IMPTSSE-2019_es.pdf

¹⁵ EHSSko erakundeek kudeatzen duten bolumen ekonomikoaren datua EHSSren Barometroaren azken edizioan edo Liburu Zurian parte hartu badute bakarrik ezagutzen da.

Erakunde onuradunen tamaina	IMP2023	2021eko barometroa
Erakunde oso txikiak	0,6	29,2
Erakunde txikiak	4,5	19,6
Erakunde ertainak	31,4	29,3
Erakunde handiak	13,5	14,5
Erakunde oso handiak	49,9	7,5

Lehen aipatu dugun moduan, EHSSko erakundeen erdia, gutxi gorabehera, erakunde txikiak edo oso txikiak dira eta proportzio hori sustapen-ekintzaren erakunde onuradunen guztizko kopuruan (% 5,1) dutenekiko oso ezberdina da. Gainera, datuek erakusten dute erakunde handiek edo oso handiek sustapen-neurri asko biltzen dituztela, eta EHSSn duten proportzioa % 22 ingurukoa dela. Horrek agerian uzten du sustapen-ekintzak erakartzeko ahalmen handiagoa izan dezaketela. Dena den, baliteke sustapen-neurriak bilatzeko eta identifikatzeko prozesuak ere nolabaiteko eragina izatea eta, ondorioz, enpresa onuradunak bere burua ezagutarazi duen kasuak bakarrik bistaratu izana. Erakunde handienetan eta baliabide gehien dituztenetan ohikoa izaten den moduan, datu horiek zuhurtziaz aztertu beharrekoak dira.